



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía  
Circular

**Ebazpena, 2022ko ekainaren 14koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez egiten baita Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketaren irismen-dokumentua, «17.2 antolamendu geroratuko eremua –OR Irita–» eta «17.3 antolamendu definituko eremua –AZ Amillubi–» guneei dagokienez (Zarauzko udal-mugartean).**

## AURREKARIAK

2022ko martxoaren 10ean, Zarauzko Udalak eskaera bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Zarauzko «17.2 antolamendu geroratuko eremua –OR Irita–» eta «17.3 antolamendu definituko eremua –AZ Amillubi–» guneei buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoa betez.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskinean dakarren formularioa (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena).

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Zarauzko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatu zenean, eta jasotako txostenak aztertu ondoren, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazuela behar beste datu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta eduki beharko dute administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programek (II.A eranskinean zerrendatuta), eta horien aldaketek eta berrikuspenek, horiek egitea lege- edo erregelamendu-xedapen batek edo Gobernu Kontseiluaren akordioaren batek eskatzen badu, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan zehaztutako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean –«Ingurumen-azterketa estrategikoaren edukia»– bildutako eskakizunak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan –«Erreferentziako agiriaren edukia» eta «Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenaren edukia», hurrenez hurren– bildutakoak ere.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**– Zarauzko «17.2 –OR Irita– antolamendu geroratuko eremua» eta «17.3 –AZ Amillubi– antolamendu definituko eremua» guneei buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea (en (aurrerantzean, Plana), honako baldintza hauen arabera:

##### **1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena**

Indarrean dagoen Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2008ko otsailaren 13ko Ebazpenaren bidez onartu zen behin betiko) eta haren aldaketak (2010eko ekainaren 30ean onartu zen behin betiko) «17. Irita» eremua mugatzen dute, eta, horren barruan, «17.1 eremu finkatua. Zubiaurre», «17.2 antolamendu geroratuko eremua. OR Irita» eta «17.3 antolamendu definituko eremua. OD Amillubi», eta haren egiturazko hirigintza-erregimena zehazten dute.

Planaren helburua da «17.2 Irita» eta «17.3 Amillubi» eremuetan indarrean dagoen hirigintza-erregimena berregokitzea, eta «17.1 Zubiaurre» eremuari dagozkion zehaztapenak finkatzea.

«17. Irita» eremua hiri-lurzorua da. Aldaketak ukitutako azalera, guztira, 70.725 m<sup>2</sup>-koa da, eta honako eremu hauen azalaren baturaren emaitza da: «Irita» (61.181 m<sup>2</sup>) eta «Amillubi» (9.544 m<sup>2</sup>). Bi eremuak Zubiaurreko eremu finkatuak bereizten ditu, hurrenez hurren, ipar-mendebaldetik eta hegoaldeko mugatzen dituenak. Beraz, jarduketa-eremu ez-jarraitua osatzen dute. Amillubiko iparraldeko muga Euskotrenen trenbidea da, eta Irita eremuaren gainerako mugak bat datoz «17. Irita» eremuaren mugekin.

Indarrean dagoen HAPOk ekonomia-jarduera estrategikoak garatzeko eremutzat hartzen du Irita: hirugarren sektoreko erabilera eta hotel eta merkataritzakoa, gutxienez 40.870 m<sup>2</sup>(s)-ko eta 4.050 m<sup>2</sup>(s)-ko eraikigarritasunarekin sestra gainean, hurrenez hurren. Gainera, espazio libreen sistema orokor bat izango du, gutxienez 14.000 m<sup>2</sup>-ko azalera, eremuaren ipar-mendebaldean, lñurritza erreka-ondoa, eta espazio libreen tokiko sistema bat, gutxienez 9.000 m<sup>2</sup>-koa. HAPOk antolamenduko plan berezi bat formulatzearekin lotzen du «Irita» eremuaren antolamendua. Plan Berezia eta Hirigintzako Jarduketa Programa 2008ko uztailean onetsi ziren. Baina, azkenean, ez zen urbanizazio-proiektua onartu.

Planak proposatzen du espazio libreen sistema orokorra (ELSO) zabaltzea Irita eremuan, barne hartuta San Pelaio erreka-ondoa, Zubiaurrezhar kalearen eta autobiderako sarbidearen arteko eremua. Hala ere, kanpo geratzen dira haur-eremua eta aparkaleku-lurzatia, horiek zuzkidurazkotzat joko bailirateke. ELSOa hezegune gisa lehengoratzeko gordeko litzateke. Gainera, Itxasmendi auzoaren ondoko eremuaren hego-ekialdeko eranskinean etxebizitza babestuen (13.000 m<sup>2</sup>(s)) eta zuzkidura-bizitokien (1.817 m<sup>2</sup>-ko lurzatia) bizitegi-erabilerearako eraikinak jartzea proposatzen da.

Amillubi eremuari dagokionez, indarrean dagoen HAPOk bizitegi-eremu berri bat sortzea aurreikusten du, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko, 11.500 m<sup>2</sup>(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna izango du sestra gainean, gehienez 136 etxebizitzak osatutako etxebizitza kolektibotarako, eta 1.500 m<sup>2</sup>(s) hirugarren sektoreko (gutxienez 520 m<sup>2</sup>(s)) eta ekipamenduko erabileretarako beheko solairuan. Halaber, eraikigarritasun gehigarria aurreikusten da sestra azpian, garaje eta trastelekutarako. HAPOk antolamendu xehatua zehazten du. Bestalde, zuzkidura-bizitokiaren antolamendua aurreikusten du (248,70 m<sup>2</sup>-ko lurzatia), eta antolamenduz kanpoko gisa kalifikatzen du dagoen udal-biltegiaren eraikina.

Amillubiko eremuan, halaber, udal-biltegiaren eraikina kentzea proposatzen du Planak, eta zehazten du bai bizitegi-erabilera (erregimen tasatuko udal-etxebizitzak: 1.900 m<sup>2</sup>(s); eta salmenta libreko etxebizitzak: 4.500 m<sup>2</sup>(s)) eta zuzkidura-erabilera ezartzea (bizitegi-eraikinaren beheko solairua: 1.400 m<sup>2</sup>(s)), bai geltoki intermodala sortzea (autobus-geltokia Euskotrenen egungo San Pelaio geralekuarekin konbinatuta).

Gainera, Irita eremurako sarbide-sarea osatzea proposatzen da, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako baldintzak hobetzeko: autobiderako sarbidea Indamendi kalearekin lotu nahi da, Maria Etxetxiki eta Zubiaurrezahar kaleekin eratzuna osatzeko; oinezkoentzako bide bat egin, hezegunea ipar-ekialdetik inguratzen duena, eta ibilbide bat sortu Itxasmendi auzoaren eta geltokiaren artean. Ondorioz, pasabide bat eraiki behar da San Pelaio errearen gainean.

Guztira 4 alternatiba aztertu dira:

- 1. alternatiba: eremuaren egungo egoera finkatzea.
- 2. alternatiba: padura lehengoratzeta eta autobus-geltokia eta sustapen publiko eta pribatuko bizitegi-erabilerak ezartzea. Alternatiba honen barruan bi aukera daude. 2A alternatibak 140 etxebizitza proposatzen ditu Iritan, 9 solairuko lau eraikin isolatutan, eta 1.817 m<sup>2</sup>(z)-ko lurzati bat zuzkidura-bizitokitarako; Amillubin, aldiz, autobus-geltokia, bizitegi-eraikin batekin. 2B alternatibak proposatzen dituen bizitegi-eraikinek 6 solairu eta teilatupea dute, hala, lurzatiaren okupazioa murrizten dute, espazio librearen mesedetan.
- 3. alternatiba: 2. alternatibaren helburu orokor bera du, baina Indamendi kaleko tarte laburraren kokapena aldatzen da; hau da, eraikitako multzotik ekialderago eramaten da, eta, modu horretan, tamaina handi samarreko hiri-plaza lortzen da. Alternatiba honen barruan ere 3A eta 3B aukerak daude, eta, 2A eta 2B aukerak bezala, etxebizitza babestuen hartzen dituzten eraikinen antolamenduan eta tipologian bereizten dira.

## **2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak**

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan zehaztutako irizpideak (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko Legean (azaroaren 25eko 9/2021 Legea) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, eta balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestea.
- b) Hiri-segregazioa eta hiri-barreiadura saihestea, bai eta mugikortasun behartua ere, eta irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren bitartez eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak bultzatuta.

- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, eta, horretarako, lurzoria jasangarritasun handiagoz erabiltzea eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatzea.
- d) Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarrizko bizi-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea, eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
- e) Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta kultura-ondarea eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, berezitasuna eta edertasuna eta ere.
- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratzeko eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoria eta materialak.
- i) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, eta kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratzea.
- l) Natura-arriskuak gutxitzea.

### 3. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Plana Zarauzko hiri-bilbeak inguratutako eremu batean sartzen da, eta 70.725 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen du guztira, «Irita» (61.181 m<sup>2</sup>) eta «Amillubi» (9.544 m<sup>2</sup>) eremuen azalaren batuketaren ondorioz. Sestra-kotak 3,5 eta 5,50 m artekoak dira, eta orografia nahiko laua dute. San Pelaio eta Asti errekek zeharkatzen dute eremua, eta bat egin ondoren, Iñurritza erreka sortzen dute.

Iñurritza ur-masaren egoera ekologikoa «Hala-holakoa» da; egoera kimikoa, berriz, «Ona». Eremuko landaredia antropizatuta dago. Asti errekek bi aldeetan lezkadi-masa bat nabarmentzen da; Iñurritza errekek ertzetan, lehengoratu berri diren haltz-, lizar-, astigar- eta tamariz-landaketak daude, eta, zenbait gunetan, sastrakak eta sasitzak dira nagusi. Horrez gain, parke eta lorategietako berezko landaredia duten gunek eta baratzeak daude. Eremuan, EU 1130 kodedun Batasunaren intereseko habitata kartografiatu da. Gainera, espezie exotiko inbaditzaileak aurkitu dira (besteak beste, *Arundo donax*, *Baccharis halimifolia*).

Eremuan ez dago naturagune babesturik; hala ere, eremutik ibaian behera –zehazki, 150 m iparraldera–, ES2120009 Iñurritza kontserbazio bereziko eremua eta Iñurritzako biotopo babestua daude (hezegunea EAeko Hezeguneeen LPSren I. taldean sartuta dago).

Eremuan, gainera, «Iñurritzako itsasadarra» (A1G3) hezegunea dago. EAeko Hezeguneeen Lurralde Plan Sektorialaren II. taldean sartzen da, eta, beraz, xehetasunez antolatuta dago: hiri-eremutat hartzen du.

Faunari dagokionez, Iñurritza errekek arrain-faunaz gain, nabarmendu behar da, Iritan, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartutako hegazi-espezieak daudela. Eremua ez dago onartutako kudeaketa plana duten espezie mehatxatuen intereseko eremuen barruan.

Urola Kostako Lurralde Plan Partzialak UdP01 «Urola Kostako Itsasertza» paisaia-unitatearen jardun-eremua barne hartzen du. Planaren jardun-eremuaren zati bat PIBE 31 paisaia-interes bereziko eremuaren barruan dago, lehengoratu eta balioa eman behar zaiolako (A-8 autobidearen eta ordainlekutik Zarauzko herrigunerako lotunearen inguruko banda bat da). Lan-eremutik gertu, PIBE 09 dago, Iñurritza KBEari dagokiona. Ez da aurkitu kultur ondarearen elementurik.

Arriskuei dagokienez, Zarauzko uholde-arrisku handiko eremuan sartzen da (UAHE) (ES017-GIP-ORI-01), eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanen eta lehentasunezko fluxu-eremuaren eraginpean dago. Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna oso txikia da, interes hidrogeologikoko eremu batean egon arren. Ez da aurkitu lurzatirik, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen EAEko inbentarioan dagoenik.

Zarautzek zarata-mapa bat du, eta, horren arabera, eremuak ez ditu betetzen urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak– etorkizuneko jarduketarako ezartzen dituen kalitate akustikoko helburuak (aurrerantzean, KAH). Bestalde, udalerriak zarataren aurkako ekintza-plan bat dauka, udalerriko babes akustiko bereziko eremuak (aurrerantzean, BABE) ezartzen dituena; eremua 1. BABEn sartzen da. Eremua AP-8 errepidearen eragin akustikoko eremuaren barruan sartuta dago.

Amillubiko eremua zigitatuta dago, baina Irita eremuko jarduketaren ondorioz, egun urbanizatuta dagoen eremuaren (Itxasmendi) ekialdeko lurzorua okupatuko da. Hala ere, adierazi behar da okupazio hori txikiagoa dela eremuan indarrean dagoen antolamendua (HAPO) gauzatzearen ondoriozkoa baino.

Horrez gain, Iritan, interes eskaseko landareek jasango dituzte eraginak; Amillubin, berriz, lerrokatze-zuhaitzen batek. Interes handieneko landaredia ELSOn bideratutako eremuan dago, eta hezegune gisa lehengoratuko da, dagoeneko idatzita dagoen proiektu baten arabera. San Pelaio (edo Iñurritza) erreka gaineko pasabideak, beharbada, kalte puntuala ekarriko dio ibaiertzeko landarediari. Espezie inbaditzaileak daudenez, beharrezkoa da prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezartzea, espezie horiek sakabanatzea ekiditeko.

Garapen berriak eraikitzeke etapan sortuko diren eragin nagusiak lur-mugimenduekin lotutakoak izango dira; besteak beste, hondakinak eta soberakinak sortzea, populazioari eta fauna-espezie sentikorrei eragin diezaieketen zaratak igortzea, partikulak emititzea eta solido esekiekin kargatutako emisioek lurrazaleko uren kalitateari eragitea. Kontuan izan behar da lurrazaleko uren kalitatearen gaineko kalteak, aldi batez bada ere, eragina izan dezakeela Iñurritza KBEan eta izen bereko biotopo babestuan; beraz, prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarri beharko dira.

Baliteke ELSOn padura leheneratzeko egingo diren jarduketek –egin behar diren lur-mugimenduek, zehazki– kalteak eragitea obrek irauten duten bitartean, bereziki, uren kalitateari, eta, beraz, zuzenketa-neurriak aurreikusi beharko dira.

Asti erreka –Irita eremua zeharkatzen du– ez du kalte zuzenik jasango, ezta San Pelaio erreka ere –Irita eta Amillubi eremuen artean dago–.

Ustiapen-fasean, bizitegi-garapenek hondakinak sortzea eta baliabideen kontsumoa handitzea ekarriko dute (ura, elektrizitatea, etab.). Hala ere, kontuan izan behar da HAPOren aldaketak eraikigarritasuna murriztea ekarriko duela, bai Irita eremuan bai Amillubi eremuan, eta, beraz, ziurrenik, eragin horiek murriztu egingo lirateke.

Udalerriko zarata-maparen arabera, eremuak, gaur egun, ez ditu betetzen urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritako KAHak. Azterketa akustiko espezifiko bat egin beharko da, arlo horretan indarrean dagoen legeria betetzeko beharrezkoak diren zuzenketa-neurriak ezartzeko.

Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko da.

ELSON padura leheneratzeko egingo jarduketek inguruneke biodibertsitatea hobetzea ekarriko dute (landaredia, fauna, habitatak eta azpiegitura berdea).

Gainera, garapenari esker, mugikortasuna hobetu ahal izango da bai Irita eremuan eta inguru hurbilean (Itxasmendi) bai Amillubi inguruan; izan ere, egun dagoen autobus-geralekuak Zubiaurrezahar kaleko trafikoa oztotzen du.

Ez da aurkitu bateraezintasunik hierarkian gorago dagoen plangintzarekin.

#### **4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak**

Planaren xede den eremuan, eta beti Iritako hezegunea lehengoratzeko aurreikusitako gainazalak errespetatuta, aurkeztutako planean ezarritakoaren arabera, ez da hauteman jarduketak egiteko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: sistema hidrológicoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; naturaren, landarediaren eta intereseko faunaren kontserbazioa; espezie aloktono inbaditzaileak; uholde-prebentzioa, eta hots-kutsadura.

#### **5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra**

Ondoren, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbilduko da; ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdiok:

**Natura-ondareari** dagokionez:

- Oso modu positiboan baloratzen da Iritako hezegunea lehengoratzeko proiektua, Iñurritzako hezegunean dagoen eta balio handia duen habitat bat lehengoratzen lagunduko baitu. Gainera, jarduketa-eremutik ibaian beherako eremua Natura 2000 Sarean sartzen da (ES2120009 Kontserbazio Bereziko Eremua).
- Flora-espezie exotiko inbaditzaileak daudenez –bereziki «17.2 Irita» azpierenan–, komenigarria litzateke ingurumen-azterketa estrategikoak horiek kontrolatzeko eta desagerrarazteko protokolo bat barne hartzea.

**Kultura-ondareari** dagokionez:

- Ukitutako eremuan ez dago kultura-ondareko elementu babesturik (ez elementu arkitektonikorik ez arkeologikorik).

#### **6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena**

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoari jarraituz, egiten diren apartatuek eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
  - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
  - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
  - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
  - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
  - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak ondorengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasunarekin eta xehetasun-mailarekin:

### **6.1. Planaren deskribapena**

Plana osatzen duten alderdiak deskribatuko dira. Planaren proposamen berriak identifikatuko dira, eta behar bezala bereiziko dira dagoeneko onartuta dauden proposamenetatik. Eta, proposamen berri horien artetik, argi eta garbi identifikatuko da programa gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### 6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, labur-labur azaldu beharko da nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 2. apartatuan bildu diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearrekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Adierazi beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Urola Kostako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- Itsasbazterreko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa; bereziki, uholde-arriskuko eremuei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena.
- Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Iritako hezegunea (Zarautz) lehengoratzeko proiektua, Zarauzko Udalak sustatua.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen xehe bat egingo du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Planak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzeko ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak finkatzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Era horretan deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu, eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioa eduki beharko dutela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuetan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek barne hartuko dituena: eremuaren mugaketa eta jarduketak guztien kokapena, pdf eta shape formatuetan (georeferentziatuta).

### 6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera eta beste edozein alderdi. Era berean, 0. alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketak-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planaren barne hartutako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuetan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuetan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere bilduko da, azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan agertuko dira.

### **6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea**

Azterketak azaldu beharko du zein diren ingurumenaren egoeraren ezaugarri nagusiak, Planak ukitutako eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eragin-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena. Planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen guneak bakarrik hartuta.



Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

#### 6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da, hala nola ibai-ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko tokiak, korridore ekologikoak, etab. Egungo elementuek duten kontserbazio-egoerari, interes-mailari, kalteberatasunari, presioei eta egungo mehatxuei buruzko datuak emango dira, Plana gauzatzean areagotu baitaitezke.

Ildo horretan, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-aukerak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik elementu interesgarriak ote dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzorua kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzorua identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta arazoaren eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babes kulturaleko ondasunari.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den gunerik dagoen eta kaltetua gerta daitezkeen biztanleria, etab.

#### 6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labor-labor jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokituzko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketek garapena baldintzatu dezaketen alderdiak jabari publiko hidraulikoaren babesarekin, uholde-arriskuarekin eta eremuaren kalitate akustikoarekin lotutakoak dira, eta alderdi horiek Azterketan aztertuko dira.

### **6.3. Proposatutako planaren ingurumen-eraginak**

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer ondorio izan ditzaketen planean bildutako ekintzek 6.2 apartatuan adierazitako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatzeko eta horien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer interakzio dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak; metatze-ondorioak; sinergia-ondorioak; epe labur, ertain eta luzerako ondorioak; ondorio iraunkorrak, eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak azalduko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketek eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren metatze- eta sinergia-ondorioak.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landare-komunitateetan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira. Hala badagokio, intereseko habitatak edo intereseko aleak identifikatuko dira.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko eremuen erabilera-mugei dagokienez.
- Horrez gain, aztertu egingo da ea Plana bateragarria den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planarekin (UAKP), Zarautz (kodea: ES017-GIP-ORI-01) izeneko uholde-arrisku handiko eremuari dagokionez.
- Eremua interes hidrogeologikoko eremutzat hartzen denez, garapenak lurpeko ur-masetan izan dezakeen eragina aztertuko da.
- Indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa). Hala badagokio, kontuan hartu beharko da 42. artikuluan etorkizuneko hirigintza-garapeneko bibrazioen ebaluazioari buruz ezarritakoa.

– Planaren garapenean aurreikusitako ekintzek paisaia duten eragina.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

– Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.

– Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.

– Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:

. Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.

. Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzuaren kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.

. Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen eragin horien iragarpenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta ahalegina egingo da, zehazteko planaren edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorioa ekarriko duen ekintza horrek Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan sartzeari eskatzen duen, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

#### **6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak**

a. Apartatu honetan, azalduko da zer neurri aurreikusten diren Azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura-eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoaren aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

– Ingurune hidrikoa babesteko neurriak: obra-fasean neurriak proposatuko dira, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea ez murrizteko, betiere kontuan hartuta Planaren eremutik Asti eta Iñurritza errekek igarotzen direla, eta eremutik ibaian behera –zehazki, 150 m iparraldera–, ES2120009 Iñurritza kontserbazio bereziko eremua eta Iñurritzako biotopo babestua daudela (hezegunea EAeko Hezeguneen LPSren I. taldean sartuta dago).

– Prebentzio-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurri espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzeekin, positiboa).

– Plana garatzeko jarduketak paisaia integratzeko irizpideak zehaztuko dira, eta erabiliko diren espezieak eta birlanatuak diren gainazalak finkatu. Eremuko berdeguneetan eta espazio libreetan, lhobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeako eskuliburua* kontuan hartzea gomendatzen da.

- Nolanahi ere, eta sustatzaileak bidalitako dokumentazioaren arabera, Planaren zehaztapenak bateragarriak izan beharko dira Zarauzko Udalak sustatutako Iritako hezegunea lehengoratzeko proiektuan ezarritakoarekin.
- Planaren esparruan ageri diren flora exotiko inbaditzaileko espezieak (*Arundo donax*, *Baccharis halimifolia*, *Robinia pseudoacacia* eta beste batzuk) kontrolatzeko protokoloa prestatu beharko da.
- Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan ezarritakoa. Hartara, ezingo da egin ez alteraziorik nahiz artifizializaziorik ibaiertzetan, ezta ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuetan ere, eta, ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea sustatuko da.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen plan hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko eremuko erabileren mugei dagokienez, bai eta EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren araudia ere (E.2 apartatua).
- Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenari jarraikiz, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitekeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua*. (Udalsarea 21eko lan-koaderno) eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

## **6.5. Ingurumena zaintzeko programa**

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana exekutatzeke aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak barne hartu beharko ditu Azterketan proposatzen diren adierazleak, bai eta kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

## **6.6. Ingurumen-laburpena**

a. Azalduko da nola txertatuko diren ingurumen-alderdiak Planean. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertu egingo da zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta beharrezkoak diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana gauzatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan ageri diren informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

## **6.7. Laburpen ez-teknikoa**

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak adierazi beharko dira.

## **7. Jendaurreko informazioaren eta kontsultaren izapideak**

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioei dagokienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren ukitutako administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Gipuzkoako Zuzendariordeztza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia. Bide Azpiegituren Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan Elkarte.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte).
- Arkamurka Natur Elkarte.

## **8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak**

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, eta barnean hartuko ditu plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa,

informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak. Esteka honetan biltzen dira:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion\\_eae/eu\\_def/adjuntos/2022\\_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA\\_v4.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf)

**Bigarrena.**– Ebazpen hau Zarauzko Udalari jakinaraztea.

**Hirugarrena.**– Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria  
Javier Agirre Orcajo